

**GIZARTE ZERBITZUETAKO EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2010-7-16ko BILKURAREN AKTA**

Bilkura Gasteizen (Seminario) egin da  
Zumarragako Tomas Dohatsua 67.-}-

**DEIALDIA EGIN DU:**

**Presidentea: Gemma Zabaleta Areta andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

**PRESIDENTZIA ETA IDAZKARITZA:**

Presidentea bileran izan ez denez, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluko  **jarduneko presidente gisa** Fernando Fantova jauna aritu da, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuordea.

• **Idazkari** titular gisa, Kontseiluko presidenteak izendatuta,  **Angel M. Manero González** Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako Gizarte Gaietako Arloko arduradunak jardun du.

**BILDUTAKO KONTSEILUKIDEAK:**

**Alfonso Gurpegi Ruiz jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

**Pedro M<sup>a</sup> Sánchez Amado jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarteratzeko zuzendaria.

**Miguel Angel González Martín jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko zuzendaria.

**Leyre Sologuren Etxenagusia andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Berrikuntza Soziolaboraleko Zuzendaritzako teknikaria.

**Miren Amilibia Urcelay andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren aholkularia (Droga Gaietako Zuzendariaren orde).

**Ana Tellería Etxebarria andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko Zuzendaritzako teknikaria.

**Mónica Ibañez González andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako Zuzendaritzako aholkularia.

**Cándido Hernández Garduño jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berrizatzeko zuzendaria.

**Leyre Azkona Murua andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kiroletako Saileko Gazteria Zuzendaritzako teknikaria.

**Isabel Muela Lopez andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismoko zuzendaria.

**Arantxa Elizondo andrea.**- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

**Covadonga Solaguren Santamaría andrea.**- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen diputatua.



**Jon Etxebarria Orue jauna.-** Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Gizarteratzeko zuzendari nagusia.

**Juan Ramón Larrañaga Mercero jauna.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen Laguntzako zuzendari nagusia.

**Dorleta Goiburu Muruaga andrea.-** EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte).

**Ricardo Barkala Zumelzu jauna.-** EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte).

**José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.-** Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteen Lurralde Federazioa.

**Miguel Angel Ruiz Díez jauna.-** Droga-mendetasunen esparruko erakundeen ordezkaria.

**Natalia Díez Caballero andrea.-** Familia Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

**Consuelo Ordejón Caballero andrea.-** EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen Ordezkaria

**Pedro Fernández García jauna.** FEVASekoa (Ezintasun Intelektual. Elkarte).

**Juan Carlos Sola jauna.-** ELKARTELANekoa (Ezintasun Fisik. Elkarte).

**Maite Calleja andrea.-** Hautzaroaren alorreko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

**Karmele Acedo Gil andrea.-** Euskadiko Lan Elkarteen Kooperatiben Konfederazioa.

**Jesus Otaño Maiza jauna.-** Euskadiko Gizarte-hezitzaileen Elkargoa.

**Gotzon Villaño Murga jauna.-** EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

**Jone Bengoetxea Epelde andrea.-** ELA Sindikatua.

#### **BERTARATU EZINA ADIERAZI DUTE:**

**Gemma Zabaleta Areta andrea.-** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEK-ko lehendakaria).

**Elena Elosegui Vallejo andrea.-** Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila.

**Javier Domínguez Entenza jauna.-** ONCE Euskadi (Zentzumen Urritas. Erak.).

**Felisa Piedra Gao andrea.-** CCOO. Euskadi.

**Amaia López Iriondo andrea.-** CONFEBASK (Euskal Entrepresarien Konfederakuntza).

#### **EZ DIRA BERTARATU:**

**Bokal bat** Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideetako alorrekoa.

**Bokal bat** Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ekonomia Plangintzako alorrekoa.

**Bi bokal** EAEko Udalen ordezkari (EUDEL).

**Bokal bat** Eusko Legebiltzarreko ordezkari (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

**Bokal bat** LAB sindikatua ordezkatzuz.

**Bokal bat** UGT Euskadi ordezkatzuz.

**Bokal bat** gay, lesbiana eta transexualen erakundeen ordezkari.

**Bokal bat** Etorkinei laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

**Bokal bat** Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ordezkatzuz.



**Bokal bat** Gizarteratze Batzorde Iraunkorra ordezkatzuz.

**Bokal bat** Gaixo psikikoen eta senideen Elkarteen Euskadiko Federazioa (FEDEAFES) ordezkatzuz.

**Hiru bokal** enpresarien erak. ordezkatzuz (CONFEBASK).

**BESTE EUSKAL KONTSEILUETAKO KIDE BERTARATUAK (BOKAL EZ DIRENAK):**

**Pascual Borja Borja jauna.-** (Gao Lacho Drom elkartekoa). Euskadiko Ijito Herriaren Kontseiluko ordezkaria.

.....

**AZTERTUTAKO GAIK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK**

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2010eko uztailaren 16ko goizeko 9:00etan hasi da, lehendakariak finkaturiko honako **gai-zerrenda** honekin:

1. 2010eko urtarrilaren 22ko Osoko Bilkurari dagokion akta onartzea.
2. Arreta Soziosanitarioko Euskal kontseilua arautzeko Dekretuari buruzko nahitaezko txostena.
3. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea aldatzeari buruzko eta Familia Bitartekotzari buruzko otsailaren 8ko Legea aldatzeari buruzko nahitaezko txostena.
4. Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen egiaztapena eta funtzionamendua arautzen duen dekretuaren proiektuari buruzko nahitaezko txostena.
5. EAEko Gizarte Zerbitzuetako egoerari buruzko Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren VII. eta VIII. Txostenaren aurkezpena.
6. Gizarte-zerbitzuak zonifikatzeko proposamena, Gizarte Zerbitzuetako Mapa lantzeko.
7. Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen 2010eko urtarrilaren 27ko Aginduaren garapenari buruzko informazioa.
8. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen aplikazioari eta garapenari buruzko balantzea.
9. Gizarte Zerbitzuetako Erakundeen arteko Organoak onartutako Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemari buruzko deklarazioaren aurkezpena.
10. Gizarte Zerbitzuen gaian Informaziorako Euskal Sistemari buruzko Proiektu-planaren aurkezpena.
11. Galde-eskeak

.....

Lehendakaria ez denez bertaratu, Kontseiluaren Osoko Bilkuraren mahaiburua Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuordea, **Fernando Fantova** jauna da.

Bertaratu direnei ongietorria egin eta etortzea eskertu eta gero (ongietorria bereziki egin dio Hezkuntza Saileko ordezkari eta Hezkuntza Berriztatze zuzendari **Cándido Hernández** jaunari, kargu horretan M<sup>a</sup> Luisa García Gurrutxagaren ordezkari), nork bere burua aurkezteko txanda bat proposatu du, eta horren ondoren, gai-zerrendan barne hartutako puntuak lantzen hastea.

1. puntua. 2010eko urtarrilaren 22ko Osoko Bilkurari dagokion akta onartzea.

Bidalitako txostenari oharrrik egin ez zaionez, 2010eko urtarrilaren 22an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

Nahitaezko Txostenei buruzko 2., 3. eta 4. puntuetako aurretizko oharra.

Gai-zerrendako hiru puntu horiei dagokienez (Kontseiluak Nahitaezko Txostenak egiteari buruzkoak horiek guztiak), Gizarte Gaietako sailburuordeak osoko bilkurako azken bileretan erabiltzen ari diren jardunbideak gogorarazi ditu, hau da, dekretuaren proiektu edo zirriborro bakoitzarekiko egin nahi diren iruzkinak, oharrak eta abar jasotzen dituen aktaren zati hori, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluak egiten duen dekretu gisa kontuan hartu.

2. puntua. - Arreta Soziosanitarioko Euskal kontseilua arautzeko Dekretuari buruzko nahitaezko txostena.

- Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak, **Alfonso Gurpeguik**, dokumentuaren zirriborroaren aurkezpen laburra egin du entzuteko izapiderako bidalitako baldintzetan (bai eraginpeko erakundeei, bai Gizarte Zerbitzuetako Erakundeen arteko Organoaren nahitaezko txostenerako). *“Horrenbestez, izapidea egiten ari zenean, izan dira jadanik argudio edota ekarpen batzuk, nahiz eta ez diren oraindik jaso, izan ere prozesua amaitzean ordura arte egindako ekarpenak horien osotasunean aztertzeke unea izango da”.*

Dekretuak Gizarte Zerbitzuetako Legearen 46.6 artikulua garatzen duela argitu du, eta Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua bi sistemen (gizarte-zerbitzuak eta soziosanitarioa) arteko *“koordinazio-kontseilu”* gisa pentsatzen dela azpimarratu du eta ez parte hartzeko kontseilu gisa, gai horretarako bi sistemek parte hartzeko beren mekanismo propioak baitituzte. Zentzu horretan ez du beste entitateen parte-hartzea jasotzen, gizarte-zerbitzuen eremuan eta osasunaren eremuan eskumenak dituzten erakundeek baino; baina Kontseiluak berak gonbidatuz gero, jorratzen diren gai zehatzen arabera, gai horietan euren jakintza ekar dezaketen pertsona esanguratsu edo adituak Kontseiluan parte hartzeko aukera ezartzen du, hitzarekin baina botorik gabe.

Gizarte Zerbitzuen eremuaren ordezkariak dekretuaren zirriborroaren idazketaren arabera zehaztuko da Gizarte Zerbitzuetako Erakundeen arteko Organotik abiatuta, *“Aldundiek, Udalek eta Eusko Jaurlaritzak partaidetza dugun organoa alegia, eta hori izango da Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko gizarte-zerbitzuen sistemako ordezkariak zehaztuko duena”*. Aurretik dekreturik gabe jadanik funtzionatzen ari ziren gairen bat jaso da Dekretuak egiten duena, (Orain arte nahiko osaera eta eduki ezberdinarekin funtzionatu duen Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilu bat dagoela aipatu du, baina ez omen zegoen dekretu batek arautua, hitzarmen batek baizik). Legeak aurreikusitakoa garatzen duen dekretuak berdin jasotzen ditu aurreko formatuan jorratzen ari ziren zenbait gauza eta, nolana ere, eremu autonomikoko koordinazio soziosanitarioko kontseilu bat da, eta horrek ez du galarazten orain arte funtzionatu duten koordinazio soziosanitarioko lurralde kontseiluen funtzionamendua edo, hala badagokio eta horrela aurreikusten du, tokiko edo lurraldeko eremuan osa daitezkeen koordinazio sanitarioko kontseiluen funtzionamendua, betiere Lurralde Historikoen lurralde eremuaren azpikoak.

Bere ustez funtzionamenduko dekretu *“organikoa”* da eta bi sistemen arteko paritatea ekartzen du, bi aldeek koordinazio-formula bat ezartzen duen aldi berean, eta horrek erabakiak aho batez hartzeko eskatzen du.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** aurkeztutako testuari buruz hitz egiteko txanda hasi du (galderak, oharrak, iruzkinak eta abar):



- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkartearen Lurralde Federazioko ordezkari **Txema Odriozolak** adierazi du Erretiratuen Federazioarentzat sentsibilitate bereziko gaia dela. Lehenik, prozedura-gai bat adierazi du, dekretuaren zirriborroei dagokienez zirriborroaren egoera zein den jakitea oso zaila egiten zaiela nabarmenduz. Martxoan zegoen zirriborro baten inguruan lanean aritu dela aipatu du, gero geroagoko bete batzuk egon dira..., *“nik iradoki nahi dudana da aldaketak badaude, Legebiltzarrean egiten den bezala, zuzenketen, eransketen edo aldaketan zutabea islatuta egotea, bestela dena berriz irakurri behar baita jarraipena egiteko”*.

Adierazten duen beste gaia da aipaturiko martxoko zirriborro horretan lanean aritu dela, horri alegazioak egin dizkiola eta martxoko zirriborrotik gaur egunekora *“bere kalifikazio pertsonala osasuneko erreformen gaian dekretua oso “light”, ebanesente eta gutxi konprometitua geratu dela”* balioesten du. Espainiako estatuaren eremuan osasuna eta gizarte-zerbitzuak elkarrekin daudela adierazi du, eta horri esker koordinazioa derrigorrezkoa dela eta hemen, aldiz, bi Sail ezberdinetan daudela. Horregatik, dekretu horri dagokionez eta gai guztietan, osasun-mapan bereziki, *“aukeratuko dugun koordinazio-ereduak garapen osoan eraginpean hartuko gaituela”* adierazi du.

4. artikulua b) idatz-zatiko idazketa aipatzen du (xedea eta funtzioak); artikulua horretan bere ustez *“gai horretan, bi sistemen arteko koordinazioa etengabe alde batera uzten da”*. Ez daki zergatik kendu den esaldi hori, baina sistemen koordinazioaren gaian 4b) idatz-zatian kendu da. Baita ere adierazi du 4.f) idatz-zatian osasunaren gaiei eta kronikoen gaiei buruz dekretuak egiten zuen bira estrategikoa erabat kentzen dela. *“Osasuneko sailburuak behin eta berriz bere aztertzen duen gai bat da, baina bitxia bada ere, orain 4.f) idatz-zatitik erabat desagertu da”*. Eta ez du ulertzen zergatik ez den arreta soziosanitariorako oinarritzko gai bat (kronikoen da arreta egin zaienetakoa kolektiboetako bat). 4.g) idatz-zatian osasun-sistemaren aldaketa sakon baten oinarritzko ideiak aldatzen dira proiektu pilotuak direla-eta. *“Horrek ihesaldi txiki baten antza du, argaltze bat dirudi, erabat argalduta utzi duen triskantza bat dirudi”*. 4 i) idatz-zatian elkarrizketa zibilaren foroa baztertzen da (profesionalen eta erabiltzaileen hitz egiten da), *“horrela, eta Alfonso Gurpeguik esan duen bezala, koordinazio-gai bat izanik, Hirugarren Sektorea kentzen da erabat. Badirudi erabiltzaileok, zerbitzu soziosanitarioen % 80 gastatzen dugunok iritzi bat edukitzeko alergiaz dagoela, eta gai hori uzten da mahaiak pertsona jantziak gonbidatzeko borondate zehatzera... hori ezer ez esatea da; hori konpromisorik ez nahi izatea da”*.

Eta osaketari buruz, *“2010eko otsailaren 4ko, martxoaren 17ko eta apirilaren 15eko elkarrizketa zibilaren foroaren gobernantzari buruz hitz egiten badugu, Hirugarren Sektoreko gai horiei guztiei buruz hitz egin dugu, eremu horretakoak zehazki. Eta hori orain kenduta ikusi dugu erabat”*. Azkenik, Odriozola jaunak adierazi du proiektu honekin erabat desengainatuta dagoela eta botoa eman behar badu aurka egingo duela adierazi du.

- Elkartearen erakundeko **Juan Carlos Solak**, aurreko txandan esandakoaren ildo berean, gaur egun erabiltzaileek eta bezeroek erabaki-prozesuetan parte hartu behar dutela adierazi du. Gaur egun planteatzen ari den huts-hutsik erakundeetako antolaketa mota hori osagarria iruditzen zaio, hau da, logikoa sistemetakoa bezeroentzat eta erabiltzaileentzat tartek zabaltzea da. Parte-hartze hori oso garrantzitsutzat jotzen du eta Alfonso Gurpeguik Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua koordinazio-organoa dela-eta gero sistema bakoitzak parte hartzeko bere bideak dituela adierazi badu ere, dekretuak informazio-bideak egon behar dutela ere jasotzen duela zehaztu du, baina berak batere ez duela ezagutzen adierazi du. Bere iritziz *“dekretua horren zabalik uzten badugu eta esperientzia orain artekoa bezalakoa bada, ez dirudi oso tresna positiboa”*.



*Horrelako kontuetan gehiago sakondu beharko genuke, hala nola nork dituen eskumenak, katalogoan, oso harreman estuak dituzten kontuetan eta abar, eta Txema Odriozolak esan duena, hau da, alor soziosanitarioa, hirugarren adinekoak, urrituak –finean mendekoez ari gara hitz egiten- oso gai esanguratsua da, oso garrantzitsua, eta oraindik gure Autonomia Erkidegoan garatzeko eta estaldura egokia emateko zintzilik dagoen gaia da”.*

Eta iruzkin moduan, hiru hilean behin egitea aurreikusita dagoen Kontseilu Soziosanitarioaren bileren maiztasunari buruz, alor soziosanitarioa gehienentzat ezezaguna bada aurreikusitakoa baino dinamismo gehiago behar duela aipatu du.

- Euskadiko Lan Elkarten Kooperatiben Konfederazioko **Karmele Acedok** aipatu du, Gobernu Onaren Kode bat garatzeko Kontseilu Aholkulari bat sortu duela Osasuneko sailburuak, eta Kontseilu horren talde aholkulari batean parte hartzen ari direla. Eman zitzaien atazetako bat gizartearen parte-hartzea sustatzeko jardunak proposatzea zen. *“Asteazken honetan bertan sailburuari sei hilabeteetan garatu dugun dokumentua eman diogu, eta guk egiten dugun proposamenak dekretuarekin bat badatorren edo etxean geratuko den da gure galdera. Guk esaten duguna da herritarren parte-hartzeak —gobernu onari laguntzeko mekanismo gisa— parte hartzeko bide egokia eskaini behar diela herritarrei -Hirugarren Sektorearen inguruan antolatuta-. Zentzu horretan, parte hartzeko sistema egonkor eta iraunkor bat egon beharko luke. Nire galdera honako hau da: sistema hori sartzen da edo dekretu horretan proposatzen diren bideetatik konpon daiteke?”.*

- FEVASeko **Pedro Fernándezek**, parte-hartzeari buruz sortzen ari den ideia hori berretsiz, honako hau adierazi du: *“Elkarrizketa Zibileko Mahaian parte-hartzen dugun sareetako batzuek biltzen gara eta gai hori ere jorratzen dugu, joera nagusia zen dekretua, egungo formulazioan, ez datorrela bat ezta aholkuz ere, gizarte-zerbitzuetako legearen sintoniarekin edo Karmele Acedok aipatu duen gobernantza-ildoarekin, edo zentzu horretako modernotasun-zantzuekin. Koordinazio-organo bat da, ez da parte-hartze organo bat, ondo, baina dekretuaren arabera dituen funtzioak plangintzakoak, diseinukoak, politikak egikaritzekoak, politikak ebaluatzekoak dira, beraz, finean, koordinazioa bai, baina zentzurik zabalenean. Kontseilu izena duen Kontseilu bat, garrantzitsuak diren sistemako zatiak barnean hartu gabe, gizarte-zerbitzuetako sistema berriz ere Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak direla dakar. Eta kito; eta osasun-sistema Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza direla, kito. Eta hori ez da horrela”. sistemak ez dira horrela. Plangintza hori ez dator bat 2010ekin, ezta gainerako sintoniekin ere. Orduan, proposamena da sintonia berri horrekiko dekretu-aldaketa bat edo gabezia horiek nola gutxitzen diren ikustea.”*

- **Txema Odriozolak**, Gobernu Onaren teknikari edo praktikeri buruzko Karmele Acedoren txandari buruz, gai horretan ekarpen batzuk egin zituztela adierazi du, elkarrizketa zibilaren foroan ia antzeko zerbait sartzen saiatu baitziren. Badirudi gai hori “ezerezean” geratu zela eta Osasun Sailak proposatzen zuena gai hori jorratzeko harremanetarako pertsona bat zela.

Osasuneko gaiak eta gizarte-gaiak gero eta lotuago daudela jabetzen da, eta horregatik ez du ulertzen osasuneko gaitik eta gizarte-gaitik baztertutako pertsona kronikoekiko arreta; eta sistemen koordinazioaz ari garenean aurreko legealdietan izan zituen gaitzez hitz egiten jarraitzen dugu. Horregatik, eskua sartzeko borondaterik ez dagoela uste du eta horrekiko etsipena erakutsi du.

- Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari **Jon Etxebarriak** adierazi du Kontseiluaren osaera, dagoen bezala, legearen garapenari eta horren 46.6 artikuluari jarraitzen diola, eta zegokionean adierazi zuela desadostasuna (desadostasunaren arrazoia zen Kontseilu horretan ordezkaritza nola zegoen banatuta).



Kontseilu Soziosanitario bati buruz hitz egiten, *“diseinatuta dagoen eran, guk ikusten dugu foru-aldundiek eta Eudelek daramaten “sozio” izeneko zatian guztira hamabitik lau ordezkari egongo lirатеkeela dakarrela horrek, horregatik uste dugu banaketa mota horretan desoreka nabarmena dagoela, eta badakigu zer egiten den legearen interpretazio batengatik, horretarako baitago hor, eta alde horretatik, dekretuari buruzko erabakian gure abstenitzeko interesa azaltzen dugu”*.

- **Juan Carlos Solak** erabakiak hartzeari buruzko idazketan sortzen zitzaizen zalantza bat azaldu du (9. artikulua), *“aho batez hartuko dira”* esaten duena. Ez dute beste adibideetan ikusi, eta horregatik horrelako planteamenduek praktikan duen funtzionaltasunari buruzko zalantzak dituzte, ez baita ohiko sistema beste motatako kontseiluetan. Ez du uste formula horrek erabakiak hartzea errazten duenik.

- **Alfonso Gurpeguik** esan du, esan den guztia jaso duela, eta aldi berean Kontseiluaren xedea bi sistemen arteko koordinazioa dela berretsi du eta ez, aldiz, ez dagoen beste sistema bat sortzea. Bere ustez *“gizarte-zerbitzuak bakarrak dira, Jaurlaritzarena, foru-aldundiena edo udalena baino, besteak beste proposatzen den osaera horretan, kontuak egiten baditugu, Jaurlaritzak berriz gutxiengo izango lukeelako (gizarte-zerbitzuetan), baina ez ditugu kontu horiek egiten gizarte-zerbitzuetako zatia erakundeen arteko organoaren ordezkari izango delako, eta hori da gobernu-organoa”*.

Eta parte-hartze eremuei dagokionez, osasun-sistemak –horretan ari gara lanean- bere parte-hartze sistemak garatu behar ditu eta, gizarte-zerbitzuetako sisteman *“ziur aski parte-hartze sistemetan ere sakondu beharko dugu”*.

Nolanahi ere, bigarren zirriborroan eta organo guztiei aurkezten ari garen bera da (zirriborroez ez betetzeko jadanik egin diren ekarpenak gorabehera), lortu du babesa, eta prozesua amaitzean hemen eta beste instantzietan egiten diren ekarpenak kontuan hartu beharko dira.

- **Txema Odrizolak** berretsi du zirriborroari buruzko bere arrazoietan, bertsioak eta lehen adierazi dituen b), f), g) i) artikulua eta azken idazketak izan duen *“triskantza”* berrikusteko eskatuz. *“osasuneko erreforma hor sartzeko konpromisoa zegoela eta hori mapatik desagertu dela”* azpimarratu du. Sistemen koordinazioa izango da... (kontzeptualki ulertzen duela esan du), baina ikuspegi faktikotik, erabat loturik dauden bi sistema dira, Osasuneko sailburua orain esaten ari denarekin, ezin da esan bi sistema bereziak direnik. *“Ikusiko dugu non amaitzen duen gai horrek, garatu behar baita”*, baina berriz esan du kronikoen gaiari dagokionez testua jadanik kendu dela.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak**, iruzkin gehiago ez daudenez, txandak amaitu ditu egindako iruzkin guztiak jaso dituela gogoraraziz, zirriborroari buruzko balorazioak azaltzen dituztenak nahiz ekarpenak egiten dituzten beste horiek, eta bi arloen aldetik beste organoetan jasoko diren besteekin batera, xehetasunez aztertuko dira.

### 3. puntua.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea aldatzeari buruzko eta Familia Bitartekotzari buruzko otsailaren 8ko Legea aldatzeari buruzko nahitaezko txostena.

- Gizarte Zerbitzuetako zuzendari, **Alfonso Gurpeguik** azaldu du hona ekarri dena nahitaezko txostena dela Omnibus Legea (2006/123/EE Europako zerbitzuen zuzentaraua EAEko arauzko testuetara aldatzen ditu) aplikatuz, geure kasuan bi lege eraginpean hartzen baititu, hau da, Gizarte Zerbitzuetakoa eta Familia Bitartekotzakoa.



Gizarte Zerbitzuetako Legean egiten dena Espainian edo Europako Erkidegoan jadanik jarduten duten entitateen erregistroa salbuestea da, salbu eta Erkidegoan berriaz errotuta dauden zerbitzuen zentroei lotuta dagoena. Hau da, zerbitzuak liberalizatzeko Zerbitzuetako Zuzentzarauak egin behar dela dioen bezala beste estatuetan edo autonomia-erkidegoetan duten baimena aitortzea da; finean, aldaketa bat da.

Familia Bitartekotzari buruzko Legean, *“familia bitartekotzaren jarduera profesionala dela uste duelako ere horren eraginpean, eta nolabait zuzentzarauak egiten duena da familia bitartekotzaren jarduera profesionala liberalizatu. Horren ondorioz aldatu behar duguna familia bitartekotzaren jarduera profesionalki betetzeko derrigortasuna da, eta hori orain ezabatzen da eta ez da beharrezkoa izango Bitartekarien Erregistroan izena emanda egotea, Jaurlaritzak edo eskumeneko administrazio publikoak zehazten duten zerbitzu publikoetarako baino”*. Beraz, jarduera profesionala garatzeko izena emanda egotea derrigorrezkoa ez denez izango, horrekin bat etorritik, arau-hausteen katalogotik aldatzen da, halaber, erregistroan izena emanda egon gabe familia bitartekotzako jarduera profesionala betetzetik eratorritakoa.

Horiek dira funtsean bi aldaketak eta egiten dutena da zerbitzuetako Europako Zuzentzaraua hasiera batean eraginpean hartzen gaituzten bi legeetara aldatu edo aplikatu. Hori lege zabalago baten barnean dago, *“Omnibus lege”* gisa ezaguna da eta lege sorta zabal bat hartzen du eraginpean.

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** aurkeztutako proposamenari buruz hitz egiteko txanda hasi du (galderak, oharak, iruzkinak eta abar):

• Arabako Foru Aldundiko ordezkari **Covadonga Solaguren**ek adierazi du bigarren puntu batoa eman behar ote zen argi ez zuenez (batoa eman behar zela uste zuen), abstenituko zirela azaldu nahi duela, izan ere, Arabako Foru Aldundiak Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari egindako alegazioak aurkeztu zitkioteko. Bigarren puntu horretan adierazi du – izan ere, badirudi ez dela botorik egongo- bere aldeko botoa.

• **Fernando Fantovak** aurreko txandari buruz argitu du *“hasiera batean, ez dagoela bozketak egiteko eragozpenik. Gutxi gorabehera ezartzen ari garena da nahitaezko txostenak izanik, baina ez lotesleak, txanden edukia txosten hori osatzen duena dela, eta hori jakinarazi digute organo juridikoek. Baina norbaitek bozketa egitea proposatzen badu, ez dago hori egiteko eragozpenik”*.

• **Pedro Fernándezek** *“Europatik datorkigun gai bat izateko itxurarekin eta, beraz, guk ezer egin ahal gabe, planteamenduan, Omnibus Legean orokorrean eta gizarte-zerbitzuetako gaietan horren aplikazioan «ideologia» dagoela”* ohartarazi du. Gizarte-zerbitzuak merkantilizatzea ez dela ideia ona dioen pentsamendu-ildo bat dagoela gogorarazi du eta Euskadin behintzat, ez dela ildo gomendagarriena. Galdera da erregistroa salbuesteko neurri hori ez ote duen era berean egiaztapena salbuestea ekartzen. Baietz uste du eta, kasu horretan, jadanik beste gauza batez ari gara hitz egiten, izan ere esaterako, Belgikako operadore bati zentroen edo zerbitzuen egiaztapena salbuestea gai serioagoa da (erregistrotik salbuestearen aldean). Bere txandaren zentzua atzean egon daitekeen planteamendu ideologikoaz ohartaraztea da, eta horretarako gai horri buruzko proposamen bat aztertuko dute, oraindik aurkezteko astirik badago behintzat. Gehienez ere, Euskadira jardutera etorri nahi duenak “autoktonoek” bezala egiaztatzea behar izateko eskatu du.

• Horri buruz, **Alfonso Gurpeguik** zehaztu du Erregistroak bitartekotza aipatzen zuela eta Gizarte Zerbitzuetan entitateentzako erregistroa eta baimena dela. Horrek ez ditu zentroak baimenetik salbuesten. Hala ere (eta eztabaidatzeko asmorik gabe) bere iritziz, *“gizarte-zerbitzuen liberalizazioa ez dago Zuzentzarau horretan ezta aplikazio horretan ere”*.





• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** iruzkin gehiago ez dagoenez, txandak amaitu ditu ekarpen horiek jaso direla gogoraraziz eta kasu honetan, lege bati buru denez, horren ibilbidean (izapidetzean) beste uneak egongo direla adieraziz eta horietan, zalantzarik gabe, mota horretako ekarpenak egin ahalko dira.

**4. puntua.- Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzaileen egiaztapena eta funtzionamendua arautzen duen dekretuaren proiektuari buruzko nahitaezko txostena.**

• **Alfonso Gurpeguik** hasierako egoera zehaztu du. “2003ko nazioarteko adopzioarako entitate laguntzaileen egiaztapena lehenago arautzen zuen dekretuaren eragina aztertu dugu, eta ondorioz gabe geratu zen egiaztapen-prozedurak egiaztatzea nahi zuten entitateen herrietarako lehiaketak aurreikusten zituelako, lehiaketa egin zen eta ez zen inor azaldu. Ondorioz nazioarteko adopzioarako entitate guztiak aurreko dekretuak arautzen zituen egoera batean geunden, 1996ko dekretuak alegia”.

Ondorioz foru-aldundiekin nahiz haur-babesaren eremuko eta adopzioaren gairako administrazio arduradunekin lankidetzaz zuzeneko lana egin da, entitateak baimentzeko Jaurlaritzaren eskumenetik gora. “Egiaztapen-prozedurari dagokionez zenbait gauza aldatzen dituen dekretu bat egin dugu; orain ez da lehiaketa bidez azaltzen, baizik eta entitateen ekimeneko prozedura bat da, eta herrirentzako egiaztapen-proposamenak aurkez ditzakete”.

Nazioarteko adopzioarako entitate laguntzaileen jardura-kontrolerako elementuak barnean hartzen dira (aurreko dekretuan jadanik bazeuden ere, orain honetan hobetzen dira) eta entitate horien kontrol-elementu berria jasotzen da, jarduten ari diren herrietan. Era berean erregimen ekonomiko bat jasotzen da, entitateek kobra ditzaketen kontzeptuak zehaztuz, eta Eranskin moduan ere jasotzen da, nahitaezko kontratu-eredu bat, nazioarteko adopzio-entitateek erabiltzen dituzten kontratu guztiak batzeko xedearekin, jardura horri segurtasuna eta koherentzia emateko.

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** dekretuaren proiektu hori buruz hitz egiteko txanda hasi du (galderak, oharak, iruzkinak eta abar):

• **Jon Etxebarriak** Alfonso Gurpeguiren hitzak berretsi ditu proiektu hori foru-aldundiekin lankidetzaz egin dela; gai horretan, foru-aldundiek euren jakintza ekarri dute eta hori “*dekretu egokia*” izan daitekeen akordio bat lortu da. Gainera, Alfonsok esan duen bezala, jartzen diren gauza batzuk hasiera batean zer ondorio edo eragin izango duen ez dakigula jakinda, izan ere, 1996ko dekretuarekin lan egiten bada gai hori zaila delako izan da. Hemendik aurrera hobeto egiteko grinarengatik “*ez dezagun zailago egin*” espero du. Nahiz eta zalantzarik gabe, dekretu hori aurrerakuntza dela onartu eta orain artekoa hobetuko duela jakintzat jotzen duen. Horregatik, bere botoa alde izango litzateke.

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** iruzkin gehiago ez dagoenez, txandak amaitu ditu eta puntu hau jorrotatutakotzat eta informazioa emandakotzat eman du; hortaz, gai-zerrendako hurrengo gaia hasi du.

**5. puntua.- EAEko Gizarte Zerbitzuetako egoerari buruzko Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren VII. Eta VIII. Txostenaren aurkezpena.**

• **Alfonso Gurpeguik** dokumentua aurkeztu du; dokumentua posta bidez bidali da eta bilera honetan txosten horien CD bana eman da ere. 2008ri dagokio (2007ko datuak aipatzen ditu) baina iaz izan zen aldaketaren ondorioz, ez zen Kontseilura ekarri eta, beraz, argitaratu gabe zegoen. Logikoa denez, Kontseiluak argitaratu aurretik ikustea egokia da.



Egitura orain arte erabiltzen zen bera da, funtsean Eustateko datuetan oinarrituz (“nahiko zaharrak”). Eta beste txostena, 2009koa, 2008ko datuak aipatzen dituen eta egitura bera duena ere. *“aldatzeko proposamenen batean lanean ari dira, eta geroago, dagokionean, Kontseiluari jakinaraziko zaio”*.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** horri buruz zehaztu du, oztoporik ez badago, Kontseiluak nahitaez egin behar dituen txostenak horiek direla ulertzen saiatzea. Eguía-Careaga Fundazioak (SIIS) fundazioak beti egiten duen lan horretan oinarrituz egiten du. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemari zein beste proiektuetan lanean ari direla aipatu du, aurretik datorren egoera hori gainditzeko aldaketak sortzearen, hau da, jadanik zaharra den informazioan oinarritutako txostenak onartzearen.

Jarduneko lehendakariak txosten horiei buruzko txanda bat hasi du:

- **Txema Odriozolak** gai-zerrendako 6. puntua mahaigaineratu du, gizarte-zerbitzuak zonifikatzeko proposamena jasotzen duena; puntu horrek gizarte-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen plangintza bateratzeko nolabaiteko asmoa du. Planteamendu zuzena hori dela ulertzen du, batez ere gizarte-zerbitzuen legea onartu eta gero, behin zorroaren garapenarekin gaudela... Nolabait, Gizarte Zerbitzuen txostenak egitura berri horrekin bat dator. Ondorioz, Eustatek bere txostena egokitu beharko luke, 1998tik datorren hori, *“eta horrengatik beti kexu izan garena denboran ainguratuta dagoelako, luzeegia delako eta egituratutako informazio gutxi ematen duelako. 38 zerbitzuetako zorro-dekretua onartzen badugu, ona izango litzateke gizarte-zerbitzuetako txostenak urtean zehar zerbitzu horiekin zer gertatu den gutxi gorabehera aztertuko balu”*.

Hala badagokio –beti bezala- txosteneko adinekoen datuak ikusi ditu eta lau orri bakarrik eskaini dizkiote hasieran eta gero, amaieran, beti puntu berari buruz hitz egiten da: egoitza-zerbitzuei buruz, eguneko zentroei buruz, eta orain etxez etxeko laguntzako zerbitzua barnean hartzen da. Baina adinekoen gaia askoz zabalagoa da eta aspektu asko aipatu gabe geratzen dira: zeharkako politikak, etxebizitza eta aztertzeko beste gauza asko. Eta txosten horretan kolektiboaren % 5ez bakarrik hitz egiten da bakarrik (egoitzen erabiltzaileak).

Laburbilduz, bere ikuspuntutik, eta horrela adierazi zuen ere aurreko legealdian, *“txosten hori denboran ainguratuta dago, egiteko erosoa da datuak ekartzea delako, baina lege berriari eta sortzen dituen zerbitzu berriei egokitutako egiturarekin azterlan bat egin behar dela uste du”*.

- **Fernando Fantovak** aukera aprobetxatu du iruzkin bat egiteko: *“hau gizarte-zerbitzuen eremura mugatutako txostena izan behar da, eta noski, bere egitura eta datuen eguneratzea aldatu behar ditu. Hala ere, adinekoen kolektiboko enpleguari, etxebizitzari, osasunari eta abarri lotutako gaiak Adinekoen Kontseiluaren esparruan adinekoei buruzko berariazko azterlanean jorratzen ari gara”* (baina gizarte-zerbitzuei buruzko txostenean beste eremuekiko zeharkako koordinazioa egin daitekeela esan nahi du horrek). *“Irailean txosten horiek izango ditugu, adinekoen bizi-baldintzena nahiz adinekoenganako tratu txarrena, eta oso interesgarriak izango dira”*. Baina bere kokapena berretsi du, gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko txostena Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemari bilduta egon behar duela aipatuz.

- **Txema Odriozolak** bere argumentua berriz hartu du, funtsean 175. orritik 193. orriraino txostenak adinekoentzako zerbitzuez ari dela azalduz, eta beti esan duena azpimarratu du (egoitza-zerbitzuak), hau da, *“hori erabat herren geratzen da. Zer gertatzen da tutoretzapeko apartamentuekin eta beste gaiekin? Txosten horretan jasotzen ez diren neurri sorta bat dago, nahiz eta adinekoentzako berariazko idatz-zati bat izan eta horri hamahiru orri eskaini. Datu gehiago izan nahi ditu”* (batez ere orain Liburu Zuri bat egongo baita).



- **Juan Carlos Solak** zehaztu du txostenean Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren datuak jasotzen direla Autonomia Erkidegoaren esparruan, eta ez direla lurraldeko datuak. Badaki datu horiek Estatukoak direla edo hortik datozela, baina informazio mota hori zonifikatzen joatea ona izango litzatekeela aipatu du. Horrela egiteak (sektoreka banakatzeaz gain: adinekoak, Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema, eta abar) kalitate handiagoko informazioa ekarriko luke.

- **Fernando Fantovak** iruzkin gehiago ez dagoenez, Kontseiluko txosten gisa hartzen ditu aurkeztu diren horiek eta gai-zerrendako hurrengo puntua hasi du.

**6. puntua.-** *Gizarte-zerbitzuak zonifikatzeko proposamena, Gizarte Zerbitzuetako Mapa lantzeko.*

- Gizarte Zerbitzuetako zuzendari **Alfonso Gurpeguik** adierazi du gai hori sistema osoaren garapenari inkardinatuta dagoela (eta 8. puntuan azalduko da). Maparen gaian zehazki, zerbitzuen mota, horien intentsitatea eta abar zehazteko funtsezko elementuetako bat zerbitzuak zonifikatzea da, eta horren proposamena orain Kontseiluan aurkezten da.

Adibidea jarri du hori puzzle bat bezala dela esanez, pieza bat mugituz gero besteetan eragina baitu, baina paraleloki lan egin behar da, Zorroaren garapenak Maparen garapenarekin zerikusia duela jakinda, eta azken horren garapenerako gizarte-zerbitzuen jardun-esparrua nolakoa izango zen ikusi eta jardun-esparru horien zorroaren zerbitzuetako bakoitza definitu behar da. Era horretan, bost maila proposatzen dira:

- 1.- Zerbitzu zentralizatuak, Autonomia Erkidegoaren esparruari dagokiona.
- 2.- Hurbiltasun txikiko zerbitzuak, Lurralde Historikoei dagokiona.
- 3.- Hurbiltasun ertaineko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen Eskualdeari dagokiona.
- 4.- Hurbiltasun handiko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen Guneari dagokiona.
- 5.- Hurbiltasun handieneko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Guneari dagokiona.

Hurbiltasun ertaineko zerbitzuei buruz, Gizarte Zerbitzuen eskualdeak Osasunaren eskualdeak aipatzen dituela azpimarratu du, horretarako ezarrita dituzten 7 eskualdeekin. Eta hurbiltasun handiko zerbitzuei buruz ezartzen den gunea 20.000-40.000 biztanletan ezartzen dela aipatu du, 30.000 biztanle batez beste. Kopuru horretara iristen ez diren biztanleetako udalerrietan zenbait udalerrietako biztanleak biltzeko neurriak antolatu beharko lituzkete. Era berean, biztanleen kopuru hori gaintuzten duten udaletan zonifikatzeko neurriak antolatu beharko lirake neurri hori proposatzen den 30.000-40.000 biztanleko batez bestekora egokitzeko. Azkenik, hurbiltasun handieneko zerbitzuak daude, gizarte-zerbitzuen oinarrizko guneariak, eta horietan hiriguneen (5.000-15.000 b.) eta landaguneen (3.000-7.000 b.) arteko bereizketa egiten da.

Horretaz gainera gunee berezien elementua hartzen da barnean, eta horrek gizarte-zerbitzuen oinarrizko gunee bakarrik hartzen ditu eraginpean, eta proposamen horretan ez dauden eta definitu beharko lirakeen adierazle (bere garaian ezarriko den adierazle baten arabera, esaterako hiriburu izatea, langabe gehiago egotea edo adineko biztanle gehiago eta abar) batzuen arabera, azken batean, oinarrizko gunee hori gunee bereizitako kontuan hartzeko gaitzen duen ezaugarriren bat duten guneeak, eta horrek oinarrizko guneeetarako aurreikusitako biztanleen urkila aldatzera behartzen du –hirikoa edo landakoa- .

Gai horretan, Gizarte Zerbitzuen Mapa geroago garatzeko kontuan hartzeko oinarrizko elementua da, eta hori Gizarte Zerbitzuen Zorroaren garapenari hertsiki lotuta dago. Plana-Mapa-Zorroa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garapenean oso eragin zuzena duten hiru elementuak dira.



- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** aurkeztutako zonifikazio-proposamen bati buruzko hausnarketa-txanda bat hasi du:

- **Txema Odriozolak** gizarte-zerbitzuen eta osasunaren guneak bateratzeko jadanik adierazitako jarrera berretsi du, Gizarte Zerbitzuen Mapari dagokionez eta erabiltzaileak ez nahasteko (horretarako 15. orritik honako paragrafo hau irakurri du: “...*lurralde bakoitzaren egoera soziosanitarioaren arabera, funtsezko ekimenak eremu bakoitzean gauzatu ahal izateko moduan...*”). Oinarrizko gizarte-zerbitzuak lehen mailakoari (osasuna) lotuta ditugu hizpide. Egon litekeen desadostasun bakarra da, foru-aldundiek eta oinarrizko zerbitzuek nola dituzten antolatuta edo kokatuta, gizarte-zerbitzuen zati handi bat foru-aldundien eskumenekoa baita – eta hori aztertu beharreko gaia da- oraingo egoera da-.

- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialen ordezkari **Gotzon Villaño Murgak** proposamena egin duen sailari galdetu dio zonifikazio-lanaren barnean zonifikazio horren arabeko profesionalen ratioetan pentsatu bada.

- **Covadonga Solaguren**, Arabako lurraldeko ordezkari gisa, eta horren ezaugarri bereziak aipatuz —hor biztanleen kontzentrazio garrantzitsua jasotzen baita—, nolabaiteko malgutasuna eskatzen du (aipaturiko 3.000-7.000 biztanleko zonifikazio horren barnean), egingo den gune berezien zehaztapenarekin etorkizunean egongo denaren antzekoa, izan ere, Arabako landagunean 3.000-7.000 biztanleren artean sorta esanguratsua zabaltzen da, eta inguru batzuetan ez da kopuru horretara helduko.

- **Alfonso Gurpeguik** lana egiteko garaian eskualdeen gairako osasun-sistemari begiratu diotela argituz erantzun die txanda horiei; guneetarako (hurbiltasuneko zerbitzuak) Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien eskualdekatzeari begiratu diote, (horiek azpieskualde deritzotenak), eta Arabako berezitasuna kontuan hartuz, benetan, landagune jakin batzuk gune berezi gisa barnean hartu beharko dira. Ratioen gaiari dagokionez, hori katalogoko zerbitzu guztien zerbitzuen intentsitatera pasatuko da. Hori izango da hemendik aurrera egin beharko den lana.

- **Fernando Fantovak** iruzkin gehiago ez dagoenez, honako puntu hau hasi du:

7. puntua.- Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen 2010eko urtarrilaren 27ko Aginduaren garapenari buruzko informazioa.

- **Fernando Fantovak** gogorarazi du gizarte gaietan Eusko Jaurlaritzak aurrean egin duen diru-laguntzen berrantolaketa, aurretik eraman dela Kontseilura eztabaidatzeko.

Hasierako egoera aipatu du, izan ere egoera horretan hiru dekretu eta diru-laguntzen hogeitau agindu zeuden. Irailean proposamen berria egin zen eta dekretuaren zirriborroa abian jarri zen, egin ziren ekarpenetako batzuk barnean hartuz edo ez, eta horren ondorioa izan zen diru-laguntzen dekretua onartzea abenduko gizarte ekimenerako eta urtarrilean garatzen den diru-laguntzen agindurako, eta aurtengo ekainean emakidaren ebazpena eman da.

Testuinguru horretan, aurreko diru-laguntzen zenbatekoei buruz diruaren zenbatekoa jaisteko joera aitortzen du, baina ezberdintasun handia da orain zeharkako elementu batzuk kontuan hartzen dituen agindu bakarra dagoela, eta lehen beste horrenbeste aginduetan islatzen ziren. Behin Ebazpenak bidali eta gero, hasiera batean “*gure iritzia arrazoiz positiboa da, eta zuek baieztatu edo ezeztatu.*”



*Nolanahi ere, orain, urtearen bigarren zatian, gure konpromisoa aldaketa horrek ekarri duenaren ebaluazio zorrotza egitea da”.*

Ebaluazioa proiektuak egikaritzearena izango da alde batetik, balorazioko batzorde teknikoa osatzen zuten funtzionarioek adierazitako eskaerari erantzunez (nahiz eta Balorazio Batzordea bost zuzendarik osatu, teknikoengandik pasatzen zen lehenik); funtzionario horiek proiektuak, erakundeak eta abar ez zutela ezagutzen adierazi zuten: *“Ebaluazio horren zati bat bisita izango da, hau da, funtzionarioak entitateetara atera beharko dira bertaratzeko eta in situ ezagutzeko. Enpleguan eraginaren ebaluazioa izango da beste osagai bat. Eta jardunbide egokiak lortu eta ezagutzera izango da beste osagaia, guk balioesten genuena zein neurritan gertatu den egiaztatzea, eta hori dekretuak berak adierazten zuen asmoetarantz nolabaiteko bira edo aldaketa zen, eta bira hori oso zakarra ez izatea aurrekoarekiko. Ebaluazioa oso partaidetza handikoa izatea nahi dugu, irabazi-asmorik gabeko sektoreak bere iritziak baliatu ahal izatea eta hurrengo urteari begira emango dugun aginduaren hobekuntzara hurbildu”.*

Gainera, zeharka, eremu publikora zuzenduriko diru-laguntzak ere multzokatu dira, udaletara bereziki, ekainean argitaratu den Agindu batean; teknikoen eta jardueren finantzaketa-proposamenak aurkezteko Agindu horren epea orain duela gutxi amaitu zen.

Azalpen horren ondoren, *“berrantolaketa horrek ekarri duen aldaketaren garrantziak behartuta”*, iruzkinen, galderen eta oharren txanda hasi du:

- Familiaren Batzorde Iraunkor sektorialeko ordezkari **Diez Caballerok** argudiatu du bere diru-laguntzen zenbatekoak murriztu direla. Familiaren federazio guztiek familiari zuzenduriko aurrekontu-zuzkidura bat zuten eta diru-laguntzarako hiru lerro sortzean, eta gizarte-esparruko elkarte guztiekin ekin zenez, kaltetuta ikusi dute beren burua. Ez daki Familia Batzorde Iraunkorrean lehen esleituta zuten aurrekontu-zuzkiduraren azalpenen bat nolabait eman daitekeen zertan murriztu den esateko, baina oso kaltetua ikusi dute beren burua beste familiarekin zerikusirik ez duten eremuetako lehiakideengatik.

- Droga-mendetasunaren eta prebentzio- eta gizarteratze-eremuan lan egiten duten GKEen ordezkari **Miguel Angel Ruizek** adierazi du diru-laguntzen dekretu berria bultzatu zenetik horren kontrako jarrera erakutsi zutela, eta orain diru-laguntzak ebazteko moduarengatik bere egonezina erakutsi nahi du. Ebaluazioaren zatia, diru-laguntzena nola ebatzi den, nola zabalik geratu den eta bisitak egingo diren, eta banaketa hori nola egin den ebaluatuko dela entzuteak poza eman dio, baina sentsazioa da ildoak eta zenbatekoak ikusi genituenean planteatzen zen murrizketa txiki hori (partidetako horien murrizketak ez ziren oso handiak), *“aldiz, guri dagokigunez, murrizketak oso esanguratsuak direla. Eta murrizketetarako denak prest baginen ere, zintzoki, ebazpen negatiboek harritu gaituzte baremazio-minimoetara ez iristeko argudioekin, oso antzinako programetan eta oso programa garrantzitsuetan, non zaitasunak dituztenei aterpea eta janaria ematen zaier”*. Diru-laguntza horien murrizketak eraginpean hartu dituzten kolektiboak daude eta Kontseilu honetan euren egonezina jasotzea nahi dute.

- Euskadiko Ijito Herriaren Kontseiluko ordezkari **Pascual Borjak** ere aurreko txanden ildo berean, jasotzen ari ziren diru-laguntza guztietan murrizketa garrantzitsua jasan dutela adierazi du, Miguel Angelek esan duenaren ildo berean, proiektuak ikusteko egingo diren bisitei buruz (hori oso garrantzitsua iruditzen zaio), baina horrek ere kezkatzen ditu, izan ere, diru-laguntzen deialdian hainbeste erakundek parte hartu badute, edo bisitekin oraintxe bertan hasten dira edo ebaluazioa hasiko dutenean zenbait erakundek beren proiektuak jadanik amaituko dituzte. Galdera lehenetsiko da (bisitetan) gai horrek interesa pizten diolako eta kezkatuta dagoelako.



- **Juan Carlos Solak**, bere aurretik hitz egin dutenen harian, Elkarrizketa Zibileko Mahaian jadanik zalantza batzuk zituela gogorarazi du eta baieztatu direla uste du, nahiz eta ez duten izan beren sareko elkarte bakoitzarentzat izan den beherakadaren balorazio sakona egiteko astirik. Baina bere ustez bazituzten zalantza horiek ikus daitezke.

Hasieratik planteatu zuten arazoetako bat hiru lerroena eta zenbatekoena zen. Bere kideak hortaz ari direla uste du: *“ezagutzen ez dugun irizpide baten arabera zenbatekoen goiko muga jartzen duzue eta diru kopuru horrekin lehiatu behar da”*. Ez daki ustekabeen izan bada edo Sailaren irizpidea (eta jakin nahiko lukete), baina beraiek ere dituzte ukatuta historikoak eta elkarteen mugimenduari lotuta dauden jarduerak (garapena, sustapena eta abar) eta gehiago saritu zaie jakintzaren kudeaketa. Baina ez zaio bat ere egokia iruditu ekimen horiek guztiak - eta benetan uste du elkarteen mugimendurako oinarritzkoak direla eta lehentasunezkoak izan behar dutela-, murriztuta izatea (zenbatekoetan, Elkartean Sarea % 10 eta FEKOOR % 20) eta horrek luzaroan egin dituzten jardueretako asko baldintzatzen ditu. Horregatik, diru-laguntzei dagokionez *“balorazio negatiboa izan behar du”*.

Bere ustez lerroen zati hori Elkarrizketa Zibileko Mahaira joatea ondo legoke eta gero esan du ezin zaiela oinarritzkoak diren programei lehiatu arazi (denen artean); eta gero, gainera, lerro jakin horretako aurrekontura egokitu beti. Horrek sor ditzake desdoikuntza horiek. Hobekuntza-proposamen gisa, Sailak elkarteen mugimenduaren esku jarri zuen aholkularitzatik jasotako laguntza eskasa aipatu du (galduta zeuden eta zalantzak galdetzean ere ez zitzaizkien era zuzenean konpontzen. Eta horrek (lerro batetik besterako orientazioan, esaterako) Ebazpenarekin zerikusia izan dezake.

- **Pedro Fernándezek** onartu du diru-laguntzen politiken birmoldaketaren gaia fina dela eta elkarteek eta entitateek diru-laguntzekin zerikusia duten edozerekin, aldaketekin eta abarrekin kritiko izateko nolabaiteko joera dutela.

Juan Carlos Solarekin ados, oraindik ez daki nolako eragina izan duen birmoldaketa horrek proiektu zehatzetan eta elkarte txikietan, eta hori zen haien kezketako bat. *“Oraindik ez da hori ebaluatu (orain ari dira horretan hain zuzen) eta horregatik, zentzu horretan, Elkarrizketa Zibileko Mahaiaren bileraren batean jorratu dezakegu. Publikoki ezagutzen ditugun (hiru) ebazpenen arabera, ez dirudi liskarra oso garrantzitsua denik”*. Eragin negatibo handiagoaz ohartarazten zen edo horrela aurreikusten zen, baina ebazpenen arabera ez dira oso garrantzitsua izan denik. Hori da bere iritzia eta FEVASena, baina beste entitateek ez dute zertan partekatu.

Hemendik aurrera denek erdian jarri behar duten lana diru-laguntzak hobetzeko elementuak bilatzea da, ikuspegi askotatik (diru-laguntzak lehenago jasotzeko deialdiaren administrazio-aurrerapena, banaketa hobea, eta abar). Azpimarratzekoa ez da hainbeste gertatu dena, baizik eta hurrengo deialdirako hobekuntza-ildoak ikustea. Azkenik, *“sareen finantzaketari ekin behar zaio, sinatu ditugun hitzarmenen bidez, baita beste sare berri batzuekin ere eta hitzarmen horien konfigurazio-aldaketarekin ere”*.

Puntu honetan edo galdera-eskeetan iragan astean atera zen dekretuari (aurrekontuena?) buruz hitz egin nahi du. 2010-2011ko diru-laguntzak funtzionario publikoen soldatak beste gutxituko direla erakusten duen dekretua.

- **Fernando Fantovak**, puntua itxiz, aipatu diren zenbait gauza, gaurtik hasita hobekuntza-aukera gisa ikusten direla adierazi du. *“Gizarte-zerbitzuen legearen oinarrian hiru diru-laguntza lerro sortuko genituen, eta agian ez zen ondo kalkulatu horietako bakoitzaren zuzkidura. Natalia Díezek esaten zuen bezala, egin behar duguna dekretuan dauden zeharkako bakoitzaren konparazio-azterlana da berariazko aginduak zirenean zeukatenaren aldean nola jokatu duten ikusteko”*.



Eta zenbatekoei dagokienez, aurrekontu-agertokia egiten hasi direla adierazi du eta ez daki esaten funtzionarioen soldatak murrizteko gaiari begira Legebiltzarrak onartu zuen Legeak diru-laguntzetan eragin zuzena izan badezake. Bere garaian, Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzak hurrengo urtean zenbatekoek izan beharko duten jokabideari buruzko adierazpenak egingo ditu. Orain goiz da hori jakiteko. Ohar gehiago gabe, hurrengo puntua hasi da:

**8. puntua.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen garapen eta aplikazioari buruzko balantzea.**

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** adierazi du puntu hau barnean hartzeko garaiko asmoa egoeraren argazki gisa egitea zela. *“Agerikoa da ez dugula lortu planteatu genuen helburua, hau da, garai honetan (2009ko uda) planaren, maparen, zorro-dekretuaren, baterako ordainketako dekretuaren, hitzarmen-dekretuaren funtsezko elementuak gutxi gorabehera egituratuak, adostuta eta abar egotea, eta ez dugu hori lortu”.*

Baina idazki bidez uzteko, *“aurreratu duguna ezagutarazi nahi dugu. Gero 9. puntuan ikusiko den bezala, Gizarte Zerbitzuetako Erakunde arteko Organoan Deklarazio bat onartu zen eta horretan egin dugun lanaren bizitasuna aitortzen da, Jaurlaritzak behintzat horrela uste du (eragile publiko eta pribatu guztiek biziki lan egin dugu), baina benetan, ez dugu nahi genuen xedea bete, baina dokumentu horretan dagoen hori guztia egin dugu”.*

Dokumentuak noraino iritsi garen erakusteko asmoa du, eta agian elementu batzuen ikuspegi kritikoak edo horien gakoak adierazi jasota geratzeko. Eusko Jaurlaritza gisa hartutako ardura betez, hurrengo hilabeteetan aktiboki lanean jarraitzeko asmoa berretsi du, ahal bezain zabala den akordioarekin, ahal bezain azkar eta erakundeen eta gizartearen parte-hartzearekin, gai horiek mugatzeko. *“Gai konplexuak dira, agertokia konplexua da, testuinguru sozioekonomikoa ez da izan litekeen laguntzaileena, baina dena dela, Erakunde arteko Organoaren Deklarazioan esaten den bezala, organo horrek eta bertan gauden erakundeek prozesu horren buru izateko gure gogoa eta babes sozialaren eremuaren barnean sistema berri bat eraikitzeak dakarren lan itzel horretan aurrera egiteko gure gogoa berresten dugu”.*

Horregatik egoki dela iritzi dio Kontseiluari horren berri ematea, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren kontsulta eta parte-hartze organo goren gisa, hausnarketa-edo iruzkin-txanda hasiz aurreratutakoari buruz, etorkizuneko ikuspegiari buruz eta abarri buruz GZEKren balorazioa jasotzeko:

• **Miguel Angel Ruizek** gizarte-zerbitzuen lege berria eta lehiaketaren gaia aipatu ditu, eta jasotzen duen sentsazioa da *“erakundeak ikusten ditugu, bakoitzak bere eskumenei eusten, hertsiki bere eskumenekoak diren gaiei bakarrik helduz eta ez direnak alde batera uzteko”.*

Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen ordezkarien aurrean, zorroa ondo zehaztuta egon arte, tarteko guneak (eskumenetan argi definitu gabe dauden tartekak) eta horietan dauden pertsonak (mendetasun-egoeran, bazterkeria-egoeran) arretarik gabe ez geratzeko eskatzeko aukera aprobetxatu du. Egoera horiek saihesteko erakundeen arteko elkarriketa -sentsibilitatez- eskatzen du. *“Ez gara zerbitzuez hitz egiten ari, ez gara legeez hitz egiten ari, zailtasunak dituzten pertsoez ari gara, batzuetan erakundeetan ez dituztenak ateak zabalik topatzen: osasun-sistemaren, gizarte-sistemaren, udalen eskumenen eta foru-aldundien eskumenen artean dabilta.”*



- **Txema Odrizolak** lehen aipatu duen gaiari buruz hitz egin du, arreta soziosanitarioari buruz alegia. Osasun Sailak idatzitako txosten bat dagoela daki (ekarpenak egin dizkiote horri) eta Elkarrizketa Zibilaren Foroan behintzat monografiko bat egiteko eta osoko bilkura bat erabiltzea txosten hori aztertzeko eskatu du, izan ere, ez daki zein egoeran dagoen (xede-proposamenak egiten dituen, plan estrategikoa ote den eta abar) eta finean, txosten hori zer den, zertarako balio duen eta nola koordinatuko den jakiteko.

Azken idatz-zatiari dagokionez, hau da, Plan Estrategikoarena, Jaurlaritzak banatutakoa, zirriborroa zein egoeratan dagoen ere ez dakiela esan du, gaia bukatu gabe geratu zelako.

- **Fernando Fantovak** jakinarazi dio zirriborroa puntu berean dagoela, “*ez da gehiago aurreratu eta egoera berean dago*”.

- **Covadonga Solagurennek** esku hartu nahi du, lehenik, zorroaren bileretan parte hartu duten pertsona guztiei publikoki eskerrak emateko, udal erakundeei, Eusko Jaurlaritzari zein foru-aldundiei. “*teknikari guztiek eta alde politikoak oso biziki egin dute lan, baina Arabako Foru Aldundian duten pena ere adierazi nahi du legeak urtebeteko garapen-epea eman bazuen ere, beste sei hilabete luzatu genuelako eta gaur egun (urte eta erdi geroago), zorroa zer izango den oraindik ez delako zehaztu.*”

*Guk, Arabako LHkoek, beti egin dugu apustu erakunde guztiok betetzen ditugun funtzio guztiek ezin dutelako eskubide subjektibo izan legeak dioen eran. Eta gizarte-zerbitzuen legeak berak ezartzen du zein eskumenak ditu hasiera batean erakunde bakoitzak. Urte askotan zehar gizarte-zerbitzuak zabalak izan gara eta beste sistemek betetzen ez zituzten funtzio asko bete ditugu. Legeak birdoitzeaz hitz egiten du eta sistema bakoitzak bakoitzari dagokiona egin behar duela esaten du (babes sozialaren sistema osatzen duten sistemak: osasuna, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, lana, hezkuntza eta abar). Egin ezin duguna da denbora luzatzen segitu eta gizarte-zerbitzuek beti bete behar izatea beste sistemek bere egiten ez dituzten funtzioetara zabaltzeko funtzioa. Are gehiago 2007an Mendetasunaren legea ezarri zenetik, foru-aldundiei ahalegin itzela eskatu baitie orain arte, eta estatutik datorren finantzaketa Mendetasunaren Legea kostatu zaigunaren % 10 ere ez izanik.*

*Orduan, guk foru-erakunde gisa aparteko ahaleginarekin geure gain hartu ahal izan badugu (erakunde bereko beste Sailei kenduz, izan ere, gure gizarte politikako sailek horri aurre egin ahal izateko gerrikoa estutu eta oso ahalegin handia egin behar izan dute besteek), erakunde bakoitzak, eta sail eta sistema bakoitzak ahalegin bera egin behar duela uste dut, eta ez gehiago denboran luzatu legea zian daitekeenaren garapena.”*

Azkenik, batzordeetan parte hartu dutenak egindako lanarengatik zorionak berretsi dizkie.

- **Pedro Fernándezek** nabarmendu du aurrerapen-dokumentuan hiru gai nagusi daudela, hau da, zorro-dekretua, baterako ordainketako dekretua eta hitzarmen-dekretua.

Covadonga Solagurenen hitzei jarraituz, eta zorro-dekretuaren fitxetako lanari buruz, lan horren alderdi sozialaren parte-hartzeaz ohartarazi nahiko luke. Fitxetan ekarpenak egiten aritu direla aipatu du (erakundearen aldetik banan-banan iritsi zaie), “*baina metodologia-proposamen moduko bat dagoela dirudi eta horren arabera gure ekarpenak prozesuaren amaieran ikusiko dira. Prozesuaren amaieran ikusiko direlako hori ez da oso egokia, erakundearen alderdian ikusi behar baitira (tekniko-politiko) eta zentzu horretan atzeraeragina izatea. Bestela, azkenean, ondorioak kontrolatzea denentzat zailagoak izango baita*”.



Zorro-dekretuak alderdi sozialarentzat duen garrantziaz ohartarazten du, baita erakundeen alderdiarentzat ere, eskumenen gaiarengatik. Baina entitateentzat oso garrantzitsua da hor definitzen delako eskubidea (zerbitzu sozialetarako eskubidea, bai, baina zertarako eskubidea?). Prozesu horretaz eta metodologia-gabezia horretaz ohartarazten du.

Hitzarmen-dekretuaz, gizarte-entitate gisa, ahal zuten presio eta indar handienarekin ekarpen garrantzitsu bat egin zioten dekretuari eta horren atzeraeragina ere ez du izan. Badirudi aztertzen ari direla, baina *“ekarpenekin eskatu ziguten bezain atzeraeragin «azkarra» ez dugu izan.”* Aldiak moldatu beharko lirateke asko ez *“sufritzeko”*.

Eta baterako ordainketako dekretuari dagokionez, aztertzen ari diren zirriborroa *“oraindik ilun xamarra”* dela uste du, eta zenbait nahaste sortzen dituela etendura-puntuz, kopuruz, eta abarrez beteta dagoelako eta horrek zehaztuko du benetan nolako baterako ordainketa izango den. Hortaz, zentzu horretan, garrantzitsua izango litzateke zirriborroan dauden argi-ilun horiek argitzea hobeto ulertu ahal izateko, kontzeptualki nahiz praktikoki.

Era berean, bi alderdiek lan handi egin dutela aitortu du (erakundeak eta alderdi soziala), eta gogorarazi du alderdi sozialak ez dituela ere baliabide asko erantzun azkar eta trebeak emateko, hortaz, baldintza horietan balantzea positiboa da.

- ELAko **Jone Bengoetxeak**, azken bi txanden ildoari jarraituz, erabiltzaileen gizarte-zerbitzuetarako sarbiderako eskubidea bermatzen duten eskubide zehatzak zehaztuko diren zalantza duela azpimarratu nahi du. *“Hori bakarrik, filosofiaren eta kontzeptuen esparruan zehaztuko diren benetako zalantzak ditugula azpimarratzen dugu, eta ere, legearen arabera, prestazioen eta zerbitzuen zorroa 2009ko abendurako onartu beharko zen eta oraindik ez da horrela”*.

- **Juan Carlos Solak** bizi dezakegun egoera balioetsi nahi du, eta lehenik mendetasunaren gaiaren falta igartzen dute eta horregatik erakundeen arteko alderdiak hiru lurraldeetan garatzeko irizpide bateratu edo bakarrak ezartzea nahiko lukeela esan du. Orain, mendetasuna balioesteko garaian, *“lurraldez lurralde joan behar dugu, oinarrizko gauzez hitz egiten ari garenean”*. Denon artean ahalegin bat egitea nahiko luke mendetasunaren legea nola garatuko den eta horren aplikazio zuzenak zerbitzuen bezero edo erabiltzaileengan dituen ondorioak ikusteko. Haien artean kezagarria da lurralde batzuetan gauza batzuk eta besteetan beste gauza ezberdin batzuk daudela ikustea. Oinarrizko gauzetan irizpide zehatzak planteatzeko eskatzen du, era bateratuan garatu ahal izateko, bakoitza bizi den lurraldea kontuan hartu gabe.

Bestalde, zain dauden gai guztiek (zorrotza, baterako ordainketa eta abar) legearen aplikazioa edo garapena atzeratzen dutela egiaztatzen. Gaur egun, SIISek emandako datuen arabera, *“jende asko dago mendetasun-egoeran, eta nire iritziz egokia ez den era batean konpontzen ari dira; etxeko zaintzaile informalarik diruzko ekarpena egiten konpontzen ari dira (“egon etxean eta hartu lau txakur txiki”) eta egin behar dena banakako API batzuen barnean gizarte-zerbitzuen gai osoa garatzea da, gizarteratze edo aukera-berdintasun deitzen dugun horretan.”*

- **Gotzon Villañok** hitza hartu du profesionalen gaiari buruz Miguel Angel Ruizek lehen esandakoa berresteko, *“kezka hori guk ere dugula badaudelako pertsona jakin batzuk gizarte-zerbitzuetan inorena ez den lurtean. Ez ditu foru-eskumenak bere gain hartzen, ezta udal-eskumenak ere eta sistema osoan baztertuen geratzen diren pertsonak dira. Profesional gisa badugu kezka zorrotzaren gain lehenbailehen akordioak lortzeko eta erakundeen aldetik erantzukizuna hartzeko gaien definitzeko”*.

- **Fernando Fantovak**, beste inork txanda eskatu ez duenez, hurrengo puntuari ekin dio:



9. puntua.- Gizarte Zerbitzuetako Erakundeen arteko Organoak onartutako Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemari buruzko deklarazioaren aurkezpena.

• **Fernando Fantovak** ñabartu du Kontseilura dakarren puntu honen esanahia erakundeen arteko organo berri horrek hasitako jarduera gertutik ezagutzeko dela (12 pertsonak osatua). 1. bilera edo osatzeko bilera ekainaren 17an egin zuen, eta hor onartu zen aho batez orain aurkezten dugun deklarazioa (akatsen bat dagoela adierazi du, izenburukoa esaterako, “bertsioa”, baina konpondu eta zuzenduta bidaliko da).

Nolabait, organo berri hori gizarte-zerbitzuen euskal sisteman hutsune bat betetzera dator, orain arte Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseilu hau bakarrik baitzegoen. Halaber, deklarazio horrek GZEKren aspaldiko eskaera bati erantzuten dio etengabe eskatzen baitzitzaien –baita gaur ere- euskal erakundeei akordioetara iristeko. Deklarazioa aho batez onartu izana baita adierazi diren beste batzuk ere, bilatzen dugun adostasun ildo horretan doa.

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** aurkeztutako testuari buruz hitz egiteko txanda hasi du:

• **Txema Odriozolak** deklarazioaren argipean, Erakunde arteko Organoak hirugarren sektorearen lana onartzearen falta igarri duela esan du, baina deklarazio hori –Gizarte Gaietako sailburuordeak jakinarazi duen bezala- deklarazioaren hamargarren eta azken puntuan esanbidez adierazita dago.

Iruzkina gehiago ez daudenez, **Fernando Fantovak** gai-zerrendako hurrengo puntua hasi du:

10. puntua.- Gizarte Zerbitzuen gaien Informaziorako Euskal Sistemari buruzko Proiektu-planaren aurkezpena.

• Gizarte Zerbitzuetako zuzendari **Alfonso Gurpeguik** adierazi du bilera honetarako eman dena Gizarte Zerbitzuei buruzko Informaziorako Euskal Sistemaren diseinurako dugun proiektua dela, eta legeak ere hori garatzeko agintzen du. “*Hilabete horietan egin dena erakunde eta entitateetan erabiltzen ari diren informaziorako eta kudeaketarako zenbait sistemari testa egitea, ebaluatzea eta ezagutzea izan da*”. Horretarako entitate batzuen laginketa eta azterketa egin zen, bereziki foru-aldundiak eta udal batzuk, eta horren ondoren mahai gainean dugun proposamenera iritsi gara.

9. diapositiban informazio-sistemak izan beharko lukeenaren mapa marraztu da. Egun, entitateetako eta eragileetako gizarte-zerbitzuetan sakabanatuta dagoen informazioaren “*gordetegi*” izan behar duen printzipiotik abiatzen gara. Hori, bakoitzak berezko informazio- eta kudeaketa-sistemeekin jarraitzeko gaitasuna izateko agindua kontuan izanik. Horretarako –eta hori da orain garatuko dugun proiektuetako bat- “*interoperatibitate-plataforma*” sortu beharko dugu eta bakoitzak berezko informazio-sistema erabiliz gero informazio-sistemarako beharrezkotzat jotzen dena sistema horretan gordetzeko .

Baina sistemaren beste ezaugarrietako bat da interoperatibitate-plataforma horretan norberak informazioa gordetzeaz gainera, gero informazio horretatik bakoitzak “*edan*” ahal izango duela. Hau da, sarrera zati bat du baina baita irteera zati bat ere, ondorioz, informazio-sistema hori ez da Eusko Jaurlaritzarena, Gizarte Zerbitzuetako Sistemaren informazio-sistema bat baizik, eta, beraz, sisteman gordetzen diren datuekiko konfidentzialtasun-maila uneoro ezarritik, denek dute datu horietarako sarbidea, plangintzarako edo zerbitzuen kudeaketarako erabilgarria izanik.

Gizarte Zerbitzuen zuzendariak uste du proiektu hori iraupen-lasterketa dela, izan ere proiektu zabala da, baina jadanik ari dira ekonomikoki neurtzen. Bederatzi azpiproiektuetan banaturik ekin zaio, dauden informazio-sistema guztien sakabanaketa handia kontuan izanik. Eta gai hori jorrazteko lehen beste saiakerak egin direla “eta beti talka egin da” jakinaren gainean egonik, hortik ikasiz, esan bezala bakoitzak daukanarekin begirunea duen informazio-sistema bat sortzea da asmoa, interoperatibitate-plataforma bat ezartzea eta gero parte-hartzea eta informazioa gordetzea ahalbidetzen duen eragile batek bere aldetik informazio hori erabili ahal izatea. Bederatzi azpiproiektuak hemendik aurrera hasiko dira egikaritzen pixkanaka, hurrengo urte eta erdian zehar burutzen joatekoa gutxi gorabehera.

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** galderak, iruzkinak eta abar egiteko txanda hasi du eta galderarik ez dagoenez azken puntuari ekin dio:

**11. puntua. - Galde-eskeak.**

Galde-eske gehiagorik ez dagoenez, 2010eko uztailaren 16eko 10:50ean amaitutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA

OE.  
Jarduneko LEHENDAKARIA